OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIENEN GARRAIO (TAXI-BUSA) ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

1.- XEDEA

Plegu honen xedea da baldintza teknikoak ezartzea, Xorrola iristen ez den lekuetara eta landalurrean bizi diren herritarrei, Gurutze, Karrika eta Ergoiengo bidaiarien hiri-garraio (taxi-busa) publikoko zerbitzuaren kontratazioa esleitzeko deialdia arautzeko.

2.- ZERBITZUA ABIAN JARTZEA.

Zerbitzu hau osorik eta beharrezko baliabide guztiekin hasiko da funtzionatzen kontratua sinatu eta berehala. Zerbitzu-prestazioaren hasiera jasota utziko da, funtzionatzen hasten den egunean Udaletxeko Idazkaritzak emango duen Hasiera Aktaren bidez. Hasiera-aktak, hala dagokionean, jaso behar du estreinako zerbitzuak erabat betetzen dituela kontratuan adierazten diren prestazio-baldintzak.

3.- BALDINTZA EKONOMIKOAK

Oiartzungo Udalak enpresa esleipendunari urtean ordainduko dion kontraprestazio ekonomikoak ez du gainditukо 50.342,01 euro + BEZ (%10). Proposamenak aurkezten dituztenean, enpresa lizitatzaileek kontraprestazio hori baino eskaintza baxuagoak egin ahal izango dituzte.

Zerbitzu honen fakturazio sistema ondorengoa izango da: Oiartzungo Udalari fakturatuko zaio zerbitzuaren hileko kostua.

Honako hauek izango dira zerbitzuen erabiltzaileek 2021. urtean ordaindu beharreko tarifak eta ezaugarriak:

- Erabiltzaileak zerbitzu bakoitzarengatik ordenantza fiskalean jartzen duena ordainduko ditu.
- Auzo batetik bestera segidan joatea zerbitzu bakarra kontsideratuko da eta taxistak ibilbide bakarra bezala kobratuko du ibilbide guztiagatik.
- Learren taxia hartu edo Learrera doanak zerbitzua dohain izango du eta erabiltzaile hauek ez dute ezer ere ordainduko.

Erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifak behar bezala justifikatze aldera, zerbitzuaren esleipendunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du hil bakoitzeko lehen bost egunetan:

- Igaro berri den hilean eman diren bidai zerrenda egun eta orduka.

Kontratuko prezioa ordainduko da hileroko faktura aurkeztutakoan (esleipen-prezioaren hamabirena izango da hilero). Faktura aztertu eta kontrastatu egingo du zerbitzuaren udal tekniko arduradunak eta, hala badagokio, organo eskudunak onartu. Fakturari gehitu behar zaio zerrenda xehatu bat, jasoko dituena enpresak erabiltzaileengandik egunez egun zuzenean eskuratutako diru-sarrerak.

Betebehar hau betetzen ez bada ordaindu beharreko kopuruen atxikipena egingo da dokumentuak aurkeztu bitartean.

4.- LANGILEAK

4.1.- Orotarikoak.

Nahikoa langile egon behar du, eta behar bezala gaituta egon behar dute (gutxienez B gidari baimena), zerbitzua ondo eman ahal izateko. Beharrezkoa izanez gero, prestakuntza jasoko dute zerbitzuko berezko jarduerei buruz, hala nola prebentzioari, osasunari, laneko osasunari eta abarri buruz.

Langileek, eguneroko lanean, ardura eta begirune osoz jardungo dute.

Gidariek ibilgailua gidatzerakoan zehazki bete beharko dituzte, Bide Segurtasunari buruzko Legea, lege horren Araudia eta Zirkulazio Kodea edo horiek ordezkatzen dituzten arauak.

Gidariak bete egin beharko ditu administrazioaren baldintza-orrietan zehazten diren hizkuntza-eskakizunak.

Egitura administratibo eta funtzionala izan behar da, ardurak eta agintea logikaz eta zehaztasunez esleituta, erakunde seguru eta arduratsua sortuko bada, lortu nahi diren helburuekin bat.

Balio berezia duten eta taxi-busean zein geltokietan agertzen diren gauzak udaletxean entregatu behar dira, jabeek berreskuratu ahal ditzaten.

4.2.- Langileak.

Esleipendunak behar adina langile izango ditu, zerbitzuak ondo funtzionatu dezan.

Ordezkari bat egon beharko da, enpresa Udalaren aurrean ordezkatzeko zerbitzuei loturiko gai orotan. Ordezkari horrek prestaziorako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izan

behar du, eta zerbitzuetan ez du eragin behar erabaki legal edo formalak hartzeko ahalmenik ez izateak. Ordezkariak zerbitzuari loturiko gaiak tratatzeko gonbidatzen duten bileretara joan behar du edo, ezin badu, antzeko erabaki-ahalmena duen langile bat eskuordetuko du.

Eskaintzan, lanari eta langileriari buruzko aurreikuspenen proposamen xehakatua adieraziko da.

Ez bada posible langileen izenak aurkeztea, esleipena gertatu ondoren eta zerbitzua ematen hasi baino lehen aurkeztuko dira.

Nolanahi ere, behar adina langile izan behar dira zerbitzua eskaintzeko eta, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ordezkapenak berehala bete behar dira.

Esleipendunak gidari titularrak izango ditu zerbitzuan eta, edozein ordezkapen egiteko, langile gaituak erabiliko dira; horiek nor diren aldez aurretik jakinarazi behar zaio Udalari.

Hilean behin, gidarien, haien lan-egoeraren, istripuengatiko bajen, gaixotasun-bajen, absentismoaren eta lan-ordutegien laburpena aurkeztuko da.

4.3.- Langileei loturiko betebeharrak.

Kontratista langileen baldintzak indarrean dauden legeetan xedatutakora doitzeaz arduratuko da. Ez- betetzerik gertatzen bada, kontratista izango da arduradun bakarra.

Agiri honen eta ondoren egingo den esleipen-kontratuaren xede den zerbitzu-prestaziora atxikitako langileek ez dute inolako lan-harremanik izango Udalarekin kontratuaren indarraldian edo kontratua amaitu edo baliogabetu ostean.

Udalari ezingo zaio inongo ardurarik eskatu inolaz ere, eta Udalak ez du erantzukizunik izango kontratistaren eta langileen arteko erreklamazioetan.

4.4.- Komunikazioak.

Esleipendunak komunikazio-sistema bat izan beharko du, lanaldian zehar alderdi tekniko zein administratiboak ebazteko ahalmena duen enpresaren ordezkari batekin harremanetan jarri ahal izateko.

Gainera, esleipendunak helbide elektroniko bat eskaini eta irekita mantendu behar du, Udalarekiko komunikazioetarako, eta enpresa esleipendunak gutxienez egunean behin irakurri beharko du jasotakoa.

4.5.- Ordutegiak

Langileen ordutegia zerbitzu-beharretara egokituko da, eta sektoreko lan-hitzarmenaren

araberakoa izango da.

5.- IBILGAILUA

Agiri honetan jasotako lanak egiteko erabiliko den ibilgailua esleipendunak jarriko du.

5.1. Zerbitzuetara atxikitako taxi busen deskribapen teknikoak.

Ibilgailuak garraio publikorako baimenduta egon behar du, eta honako ezaugarri hauek izan behar ditu, gutxienez:

Ibilgailua elektrikoa izango da.
Gutxienez, 4 bidaiari eramateko ahalmena izango du eta gehienez 9.
Aire girotua.
Irisgarritasun-baldintzak bete behar ditu. Ezinduentzat arrapala elektrikoa edo manuala eta gutxienez gurpil-aulkian doan bidaiari batentzako lekua izango du.

Kontutan izan beharko da ibilgailuak landa eremuko herri bideetatik ibili behar duela.

Zerbitzua eman ohi duen ibilgailuak Udalak ezarritako kolore eta ezaugarriekin egon behar du margotuta, eta Udalaren bereizgarria izango du, honek kontratuaren iraupen osoan egoera onean egon behar du. Zerbitzuaren enpresa esleipendunaren ezaugarriak izan ezik, eta Udalak berak publizitate errotuluen kudeaketarik kalterik egin gabe, ibilgailuak ez du izango beste bereizgarririk.

5.2.- Ibilgailuak ordezkatzea

Matxurarik gertatuz gero edo ibilgailuak zerbitzu ematea eragozten duen bestelako gertakaririk izanez gero, momentuan ordezkatuko da beste ibilgailu batekin. Zerbitzua ezingo da inolaz ere eten edo gelditu.

Kontratistak bere kontura eta inolako konpentsazio ekonomikorik gabe ordezkatu behar du kontratan jasotako edozein material, baja ematen bazaie kontsumo, lapurreta, hondatze edo bestelako edozein arrazoirengatik.

5.3.- Bigarren ibilgailua

Beti bigarren ibilgailu bat egongo da bertan bezero gehiago badaude zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko.

5.4.- Ibilgailuaren mantentze-lanak

Kontratistaren ardura izango da beharrezko mantentze-lanak egitea, ekipamendu eta ibilgailuak egoera orokor onean egon daitezen, bai mekanikari eta bai higieneari (barruan eta kanpoan) dagokienez.

Egunero garbituko da, zerbitzua hasi baino lehen.

Baldintza teknikoei dagokionez, indarrean dagoen ibilgailuen araudiak ezarritakoa beteko du eta ibilgailuen azterketa teknikoa (IAT) egunean edukiko du.

Mantentze-lanak indarrean dauden arauekin bat egingo dira.

6.- BIDAIARI KOPURUA

Gaur egun zerbitzua ematen duen elkarteak emandako datuen baitan hauek izan dira bidaiari kopuruak:

URTEA	URTEKO BIDAIARI KOPURUA
2018	3.672
2019	3.672
2020	3.672

7.- INSTALAZIOAK.

Udalak esleipendunaren esku uzten du Landetxe aparkalekuan plaza bat ibilgailuak gauez eta jai egunetan jasotzeko. Hala ere kontratistak zerbitzu hauek izan behar ditu:

Taxi-busa kargatzeko argindar hartune bat.
Telefono bat.
Wifia.

Kontratistaren kontura izango dira lokala egokitzeko gastu guztiak eta baita funtzionamendukoak (ura, argia, telefonoa, gasa...), tasak, aseguruak, lizentziak eta abar ere.

8.- KONTROL-SISTEMAK.

Enpresa esleipenduna izango da zerbitzuaren kalitatearen arduradun zuzena, eta etengabe kontrolatuko du egokitzat jotzen duen alderdi oro; hala, eskaintzan aurkeztu behar du lanen kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko zerbitzu-kontrolerako plana edo sistema, eta proposatutako neurriak zehaztuko ditu, xehetasun handienaz deskribatuz jarduteko modua, ikuskapenen eta neurrien emaitzak erregistratzeko metodoa, neurri zuzentzaileak (hala

badagokio) eta eskuragarri izango dituen baliabide material eta giza baliabide guztiak.

Esleipendunak etengabe zainduko du zerbitzuaren kalitatea: puntualtasuna, ibilgailuen kanpoko eta barneko garbiketa, erabiltzaileekiko adeitasuna, eskaera edo kexen inguruko erantzun-azkartasuna, segurtasuna, erosotasuna eta abar.

Gainera, Udalak etengabe ikuskatuko eta zainduko ditu kontratatutako zerbitzuak, zerbitzu-prestazioak eskakizun operatiboak eta zerbitzuen kalitateko helburuak betetzen dituela kontrolatzeko eta, oro har, egiaztatzeko eta bermatzeko.

Udalak ibilgailuen baldintza teknikoak eta zerbitzuaren baldintzak (ibilbidea, ordutegiak, tarifak eta abar) betetzen direla ikuskatu ahalko du.

Udalak dagozkion kalitate-inkestak egiteko ahalmena izango du.

Esleipendunak beti edukiko ditu erabiltzaileentzako eskuragarri erreklamazio orriak. Taxi busean, ongi ikusten den leku batean, iragarki bat jarri beharko da orri hauek badaudela adieraziz eta esleipendunak emango dizkio inolako erreklamaziorik egin nahi duen edozein erabiltzaileei. Esleipendunak egindako erreklamazio hori, bere informe eta alegazioekin, Udalera bidali beharko du.

Halaber, esleipendunak kontrata honetako zerbitzuarekin zerikusia duten behar beste txosten prestatu beharko ditu, Udalak hala eskatzen badio.

9.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.

Gurutze, Karrika eta Ergoien auzoetan garraioko zerbitzu publikoa emango da, Taxi-Busa.

Irteerako geltokian ibilgailu bat baino gehiagoko bidaiari balego bigarren ibilgailua abiatu beharko da, bidaiari guztiak hartu arte, zerbitzu hau esleipendunaren kontura izango da.

Gurutzeko zerbitzua Learretik jaitsi beharko da beti.

Zerbitzu guztiak anbulatoriotik pasako dira beti. Zerbitzu bakoitzeko planoak eransten dira.

9.1.1 puntuan adierazten diren ibilbideez gain, eskatu ahalako zerbitzua emango da, geralekuetatik gehienez 0,5 km-ra.

Eskatu ahalako zerbitzua denez erabiltzaileak ibilbideko edozein tokitan igo edo jaitsi daitezke.

9.1.- Ibilbideak, ordutegia eta frekuentziak

9.1.1.- URTE OSOAN ASTELEHENETIK OSTIRALERA (JAIEGUNAK IZAN EZIK)

OIARTZUNGO UDALA

Egunean berderatzi zerbitzu emango ditu, astelehenetik ostiralera (jaiegunak ezik) eta honako ordutegia izango du:

Oiartzungo plaza. Liburutegiko autobus geltokia	Gurutzeko plaza. Autobus geltokia	Learre	Oiartzungo plaza	Ergoiengo plaza. Autobus geltokia	Oiartzungo plaza	Karrikako plaza. Autobus geltokia.	Oiartzungo plaza
7:20	7:22	7:26	7:30	7:35	7:40	7:45	7:50
8:10	8:12	8:16	8:25	8:25	8:30	8:35	8:40
10:00	10:02	10:06	10:10	10:15	10:20	10:25	10:30
12:00	12:02	12:06	12:10	12:15	12:20	12:25	12:30
13:00	13:02	13:06	13:16	13:20	13:25	13:30	13:35
14:00	14:02	14:06	14:10	14:15	14:20	14:25	14:30
17:00	17:02	17:06	17:10	17:15	17:20	17:25	17:30
18:30	18:32	18:36	18:40	18:45	18:50	18:55	19:00
20:00	20:02	20:06	20:10	20:15	20:20	20:25	20:30

	Ikastetxeen egutegian, 13.15ak arte egongo da autobusa zain geltokian

Zerbitzuen Ibilbideak (planoak eransten dira):
Gurutzeko ibilbidea: Librutegiko autobus geltokia-Irungo errepidetik Gurutzeko biribilgunera-Frailen bidea-Legarrea- Iparralde etorbidetik Santusenera eta Elorrondotik Elizalde eskolatik aurrera, anbulategia, Yon oñatibia- liburutegiko autobus geltokia

Ergoiengo ibilbidea: Liburutegiko autobus geltokitik lesakako bidetik Ergoienera-Pagoan buelta eman eta bueltakoan Santusenen behera hartu, eta berriro Elorrondotik Elizalde aurrera, anbulategia, Yon oñatibia-liburutegiko autobus geltokia

Karrikako ibilbidea: Liburutegiko autobus geltokitik Santusenera-Altzibar (kaleberria)-Karrikako bidea hartu eta Artason buelta eman- berriro Altzibar- Santuseneko biribilgunean Elorrondo hartu-anbulategia-yon oñatibia-liburutegiko autobus geltokia.

9.1.2.- URTE OSOAN LARUNBATETAN (JAIEGUNAK IZAN EZIK).
Dei bidezko zerbitzua eskeiniko da 8:00 tatik 20:00tara Zerbitzu hau geltoki horietan eta 9.1.1 puntuko ordutegi eta ibilbide berean eskainiko da. Zerbitzu hau eskatzeko deia zerbitzua baino 30 minutu lehenago egin beharko da.

9.1.3.- SAN ESTEBAN JAIAK, ABUZTUAREN 2TIK 6RA:

Aste honetan zerbitzua egunero emango da, jaiegunetan ere, eta 9.1.1 puntuko ordutegi eta ibilbide berean eskainiko da.

10.- DIRU-LAGUNTZA PUBLIKO ETA PRIBATUAK.

Esleipendunak uko egingo die, Udalaren alde, zerbitzua ustiatzera bideratutako diru-laguntzei edo bestelako laguntzei, publiko zein pribatuak izan.

Esleipendunak diru-laguntzaren bat eskuratuz gero, Udalari eman beharko dio 5 eguneko gehieneko epean, kobratzen den unetik zenbatzen hasita.

Oiartzunen, sinaduraren egunean
Udal arkitekto teknikoa

AMAGOIA MARCOS SAIZAR - 15260850M

Firmado digitalmente por AMAGOIA MARCOS SAIZAR - 15260850M
Fecha: 2021.07.23 14:06:40 +02'00'

GURUTZEKO GELTOKIA

GURUTZE

HASIERA ETA BUKAERA

ELIZALDE

ALTZIBAR

ERGOIENGO GELTOKIA

ERGOIEN


KARRIKAKO GELTOKIA

KARRIKA

OIARTZUNGO UDALA **OIARTZUNGO UDALA**	DATA/FECHA: 2.021eko MARTXOA	ESKALA/ESCALA: ORIGINALAK A–3AN: ORIGINALES EN A–3: 1/10.000	PROIEKTUA/PROYECTO: OIARTZUNGO GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIENEN GARRAIO (TAXI-BUSA) ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOA
	PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO: AMAGOIA MARCOS SAIZAR/ ARQUITECTO TEC.		IZENBURUA/TITULO: KOKAPENA

OR. ZK./PLANO Nº

01



OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALA

DATA/FECHA: 2.021eko MARTXOA	ESKALA/ESCALA: ORIGINALAK A-3AN: ORIGINALES EN A-3: 1/7.000	PROIEKTUA/PROYECTO: OIARTZUNGO GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIENEN GARRAIO (TAXI-BUSA) ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOA	OR. ZK./PLANO Nº 02
PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO: AMAGOIA MARCOS SAIZAR/ ARQUITECTO TEC.		IZENBURUA/TITULO: KOKAPENA GURUTZEKO IBILBIDEA	

HASIERA ETA BUKAERA

ELIZALDE

ALTZIBAR

ALTZIBAR OLIGONOA

ERGOIENGO GELTOKIA

ERGOIEN

OIARTZUNGO UDALA	DATA/FECHA: 2.021eko MARTXOA	ESKALA/ESCALA: ORIGINALAK A-3AN: ORIGINALES EN A-3: 1/7.000	PROIEKTUA/PROYECTO: OIARTZUNGO GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIENEN GARRAIO (TAXI-BUSA) ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOA
	PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO: AMAGOIA MARCOS SAIZAR/ ARQUITECTO TEC.		IZENBURUA/TITULO: KOKAPENA ERGOIENGO IBILBIDEA

OR. ZK./PLANO Nº

03

HASIERA ETA BUKAERA

ELIZALDE

ALTZIBAR

KARRIKA

KARRIKAKO GELTOKIA

OIARTZUNGO UDALA **OIARTZUNGO UDALA**	DATA/FECHA: 2.021eko MARTXOA	ESKALA/ESCALA: ORIGINALAK A-3AN: ORIGINALES EN A-3: 1/7.000	PROIEKTUA/PROYECTO: OIARTZUNGO GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIENEN GARRAIO (TAXI-BUSA) ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOA
	PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO: AMAGOIA MARCOS SAIZAR/ ARQUITECTO TEC.		IZENBURUA/TITULO: KOKAPENA KARRIKAKO IBILBIDEA

OR. ZK./PLANO Nº

04